

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Lehenik eta behin, gure aplikazioa sortzeko aliatu nagusia garraiobide enpresak dira, izan ere, haien laguntza ezinbestekoa da gure proiektua aurrera eraman ahal izateko. Haiekin **elkarrekiko lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoak** garatuko ditugu,



hau da, ez gara gure artean lehiakideak izango, bakoitzak bere produktu propioa du eta. Bestalde, aplikazioa sortzeko norbait beharko dugu. Horretarako, aplikazioa sortuko digun enpresa bat kontratatu behar dugu eta haiek behar diren serbidoreak eta baliabideak emango dizkigu. Izan ere, gure aplikazioak online egon behar du egun osoan zehar eta garrantzitsua da kalitate oneko baliabideak izatea. Aplikazioa diseinatuko digun enpresarekin **elkarrekiko lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoak** garatuko ditugu, bi arlo desberdin direlako. Gure aliatuek haien sistemak hobetze aldera erosiko dute gure aplikazioa eta gure artean ez gara lehiakideak izango, izan ere, guk

aplikazioa diseinatuko dugu garraioaren erabilera errazagoa izan dadin, eta haiek berriz, garraioa diseinatzeaz arduratuko dira. Ondorioz, bi arlo desberdin direla esan dezakegu. Horrela, zerbitzurik onena eskaintzen ahaleginduko gara eta erabilerraza den aplikazio bat sortuko dugu.